

# ERRIA = LURRA ?

Arantzazu'n, geroneko Batzarrean, *populu* itza ontzat eman-bearrez-edo, gauza ausartatxo bat esan zuan norbaitek: *erria*, «lurra» dala, alegia; eta «errian bizi diran gizonak» adierazteko, *populua* erabili bear litzakela. Ori ez dala egia esan bear izan nuan nik: *erria* ez dala «lurra» bakarrik; «lurra eta lurrean bizi diran gizonak baizik», dana.

Argi dezagun gauza au pixka bat.

Lenengo-lenengo, gaur *populu*-itzaren bitartez esan nai dan gauza bera, orain arte ere esan izan dala; eta, ain xuxen, *erri*-itzaren bitartez; eta esan ere oso argi... ez bait-det uste iñor izan danik, izketa arruntean, itz orren esan-naia errex-errex ulertu izan ez duanik; argi, beraz... eta garbi gañera, *populuaren* bitartez ez bezela.

Bigarren; *populuaren* aldeko iritzian, *erria*, geographi-itza izango litzakela bakarrik, geographi-itza: *tierra*, *territorio* bezela-bezelaxe. Bañan ez bait-da ola. Erria ez da lurra; Erriak ba'ditu lurrak; eta beste gauza asko ere bai; lurraren eta beste gauza guzti oyen «jabea» da. Erri-itza, gizarte-itza, soziologi-itza da; obeto, geo-politika-itza. Lurra ere esan nai du; bañan ez bakarrik, ezta lenengo ere; lurrarekin batean esan nai du baita lurraren jabe dan gizartea, bazkuna ere; *ente moral*, *entidad*, alegia.

—Norenak dira lur oyek?, galdetu oi-da. Eta erantzuna: —Erriarenak... Beraz, *erria* ez da lurra; lurra erriarena da; *erria* lurraren jabea da.

Berdin baita: —Noren egitekoa da bideak eta ikastolak eta hospitalak-eta egitea? Eta erantzuna: —Erriaren egitekoa... Beraz, Erriak ba-ditu bere egitekoak, bere eginkizunak... eginkizunak eta eskubideak.

*Erria*, *ente moral* bat da... Ori bai, lurraren gañean eta «bere» lurrarekin... beste zenbait *ente moral* bezela, adibidez, *etxea* bezela, *Eliza* bezela.

*Etxea* ez dira *etxearen* lau paretak bakarrik; *etxea* *ente moral* bat da, bere lau paret eta bere lurrekin. *Etxeak* ere ba'ditu bere eskubide ta bere eginkizunak .

Berdin baita, *Eliza* ere. *Eliza* ez da Meza entzuteko *etxea* bakarrik; *Eliza* Bazkun bat da, *ente moral* bat, bere eskubide edo jabetasun eta

bere eginkizunakin... Ori, bai; Meza entzuteko Etxean «finkatua»; bañan Eliz-etxeaz gañera, beste gauza askotxo ere dituana... Erria bezelaxe...

«Erri bat izan zan» dio Orixe'k bere Poeman. «Lurra» bakarrik esan nai ote-zuan gure Olerkariak, ori esatean? Lurra? ala Euskalerrria oso-osorik, bere lur, eta bere etxe, eta bere gizon? Zuzenduko ote-genioke Orixe'ri errenkada ori «Populu bat ba'zan», esanaz?

Bañan beste gauzatxo bat ere ba'da gai onetan: *erriaz* gañera, *uria* edo *iria* ere esan oi-dala (esan oi-zala beintzat). Gauza bera al-da *uria* eta *erria*?

Nere iritzia esango det.

Euskalerrriak bi erri-era ditu: bata, erri zabalak; eta bestea, erri bildua, pillatua, moltsatua. Naparroaz eta Arabaz beste, gure erriak, antziña —artzai-aroan— danak erri zabalak ziran. Erdi-aroan Erregeak —Naparroa'ko ta Gaztela'ko Erregeak— sortu ziguten erri-bilduen era eta moda. Naparroan, ordea eta Araba'n, erriak —nekazari-erriak— beti moltsatuak, pillatuak izan dira.

Uriak, erri bilduak dirala, esango nuke nik; eta *erri-izena*, erri zabalak dagokiela.

Antziñako gure erri zabalak, *tierra* deitu izan zaye, *tierra*, *valle*, *universidad*; erri bilduak, ordea, *villa*...

Ba'liteke orregatik batedonbati otu-zayon *erria* «*tierra*» dala esatea, erderazko gure paperetan ola azaltzen dalako, alegia: *erria*, «*tierra*»; bañan lehenago esan degun bezela, *tierra* ori ez bait-zan *territorio* bakarrik. gizartea, bazkuna, persona moral baizik. Paperetan Astiasu *tierra* zan; berdin, baita, Ernani ere; Oyartzun, berriz, *valle*; Lezo ta Errezil, berriz, *universidad*... Bañan euskeraz danak *Erri*.

Itz bitan:

*Erri*, ez da lurra bakarrik; lurra eta gañerako guztia baizik; eta *uri*, berriz, neretzat «erri bildu, *villa*».

M. Lekuona.